



195. zenbakia

· MARTXOA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurtzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Mikel Jaunarena 'Zepeloren' argazkia

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 26an bidalia



“

*Basaburua'n dago erri bat,
Ballean den txikiena;
an jaio nintzen, eta nai nuke
gora jaso bere izena.*

*Arraras'ko eliza sanduan
artu nuen Bataioa;
zazpi urtekin atera giñen
andik famili osoa.*

*Ango istoria explikatzeko
egiñen dut egiñala;
egia latza danek dakigu,
ez pentsa gezurra dala.*

*Irur abratsek erosi zuten
ain maite dudan erria:
diru bait dira, agur arbolak!
t'agur, pobre den guzia.*

*Olitxea'ko Silbestra izan zen
lenbiziko joan zena;
gero, Kristobal eta Martina'k
errota uzteko pena.*

*Gure aitari saldu zioten
Gartzaron'en terrenua;
al zun bezala, etxea egin
eta jaso zun burua.*

*Ara joan-eta, gu senideen
ametsa, etxe berria;
bi neska eta mutil bat giñen:
Luis, Loentxa ta Luzia.*

*Badela berrogei urtez geigo,
egin zuten etxe dena;
gerra-denboran, jarri zioten
«Judas-Benta» dun izena.*

*Aita genuen ferratzallea;
bazen arotz jakintsua;
Benito Goñi, bere anaia,
ori zen albaiterua.*

*«Gazolatz Benta»'n
ama jaio zen,
eta berez Iaben'goa;
irurogei t'amairu urte ditu,
zenbait lan egindakoa.*

*Agur, deneri; eskerrik asko;
ni banijoa lanera;
zuen artean ni egonen naiz
ez pa'da galtzen euskera.*

*Gurea baita, gora dezagun
ain maite dugun euskara,
napar umeak -ikas dezaten-
bialtzen ikastolara. //*

LUZIA GOÑI

(Aizarotz, 1928ko abenduaren 13a – Tirapu, 2020ko martxoaren 22a)



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Mariezkurrena Nuin

Arraraskoa da izatez, baina badira urte mordoxka bat Eltson bizi dela Itziar Mariezkurrena Nuin. 39 urte, hain zuzen. Basaburuarekiko lotura handia izaten jarraitzen duela onartu digu, dena den, eta nongoa den galdetzen diotenean Arraraskoa dela erantzuten omen du oraindik. Pulunperen banaketa antolatzeke arduraren erreleboa pasatu berri dio Ricardo Igoa 'Axpik'. Eskerrik asko urteotako lanagatik, Axpi! Eta ongi etorri, Itziar!

• AMETZA KULTURA ELKARTEKO PARTAIDE ZARA ASPALDIDANIK, EZTA?

Bai, 20 bat urte badaramatzat Ametzan. Nire anaia Martin hasi zen lehenbizi, eta gero ni ere sartu nintzen. Euskara bultzatzeko asmoz hasi nintzen, zeren Ultzamara etorri nintzen oso euskara gutxi entzuten nuen. Gu Arraratsen oso ohituta geunden erabat euskaraz egitera, eta horretan aldaketa handia

sumatu nuen. Eltson, garai hartan, bizilagun bakarrak zekien euskaraz: Miguel Oronozek.

• BESTELAKO KONPROMISORIK ERE IZAN AL DUZU URTE HAUETAN GURE ESKUALDEAN?

Ultzamako Udaleko komisio eta lantaldeetan parte hartu dut, bereziki ingurumenarekin eta naturarekin lotura zutenetan. Eta azken aldi honetan emakumeen mugimenduan ere ari naiz parte

hartzen, Ultzama mailan.

• PULUNPEREN BANAKETAN AXPI ORDEZKATZERA PASATU ZARA ORAIN. ZEIN DA ZURE LANA?

Aldizkariaren 1.600 ale iristen zaizkit niri, eta horiek denak herriz herri antolatzea dagokit. Herri bakoitzean zenbat ale diren papertxo batean jarri, aleak lotu eta bereizi, eta gero herrietako banatzaileei entregatzen dizkiet. Zenbait bailaretan udaletxeetan uzten ditut aleak. Egia da lan karga pixka bat badela antolaketa guzti hori, baina borondatearekin aldapa inoiz ez da hain handia. Eta inguruko pertsona batzuk laguntzen ere ari zaizkit.

• OFIZIOZ, ZERTAN ARITZEN ZARA LANEAN?

Larraintzarko eskolan sukaldari aritzen naiz. Hor daramatzat 23 urte... eskualde guzti honetako haur eta gazte guztiak ezagutzen ditut!

• KORONABIRUSAREN GARAIOTAN, NOLA PASATZEN DUZU EGUNA, ZER EGITEN DUZU DENBORA-PASARAKO?

Emakumeoi inoiz ez zaigu lanik falta: etxeko lanak direla, irakurtzea dela, pixka bat paseatu... eta horrez gain, hemen Eltson baditugu hiru bat etxe jende oso helduekin, eta horiei laguntza ere ematen ari gara, erosketak egiten eta horrelako gauzak. Horrelaxe pasatzen ditugu egunak!



▲ Itziar Mariezkurrena



Tokian tokikoa

2019an %36 hazi da TOKIKOMeko webguneen kontsumoa

Tokiko komunikabideak, hau da, herriz herriko eta bailaraz bailarako euskarazko tokiko komunikabideak batzen dituen taldea da Tokikom, eta batzen dituenen artean, gu gaude. 2012. urtean sortu zen tokiko euskarazko hedabideen behar bereziei era bateratuan erantzuteko. Behar horien artean, edizio digitala edo tokiko hedabideen webguneak sortzeko tresna komun bat sortzea zegoen: Tokikom plataforma. Sortu zuten, eta, Codesyntax enpresaren eskutik, 30 webgune dira martxan, dagoeneko. Haien artean, amezti.eus. Eta ederki ari dira, gainera, 2019ko datuen arabera.

Urtetikurtera, etengabesendotzen ari da TOKIKOMen kanal digitala, eta beldurrik gabe esan dezakegu TOKIKOMeko bazkide diren toki komunikabideen edizio digitalek osatzen duten sarea oinarri-oinarrizko azpiegitura dela euskarazko edukien eguneroko kontsumoan. 2019ko trafikoko datuak aztertuta, kopuruak oso esanguratsuak dira benetan.

36,4 milioi orrialde

2019. urtea ona izan da euskarazko hedabide digitalen sektorearentzat. Nazioarteko joerei jarraiki, euskarazko medio digitalen kontsumoa %19

handitu zen 2019an. TOKIKOMeko bazkideen webguneetan hazkunde hori ia-ia bikoitza izan da: **36.380.205 orrialde** erakutsi zituzten guztira, **2018an baino %36 gehiago**.

“Gero eta gehiago informatzen gara Internet bidez, gero eta gehiago gara sakelako telefonoa poltsikoan daramagunak, eta berehalako albisteetarako Internet eta sakelako telefonoa oinarriko tresna bihurtzen ari dira. Eta datu horiek erakusten digute jendeari gehien-gehien interesatzen zaiona ondoan gertatzen dena dela, etxean eta eskualdean gertatzen dena. Interes handiagoa

dago tokiko informazioan”, azaldu digu Tokikomeko komunikazio zuzendaria den Joxe Rojasek. “Gainera, azpimarratu behar da, eta bada garaia hori ere aldarrikatzeko, tokiko hedabideetan lanean ari zaretenek oso lan ona egiten duzuela eta jendearen interesa ere pizten duzuela”, adierazi digu.

400.000 erabiltzailetatik gertu

Erabiltzaile kopuruari dagokionez, horrek ere hazkunde nabarmena izan du, hileroko **399.025era** iritsita. **Bisituen batez besteko iraupena ere luzatu egin da, bi minutu pasatxora iristeko.**

amezti.eus, TOKIKOMeko bazkidea da. Bertan jasotzen ditugu Ultzama aldeko albisteak.

Joxe Rojas: "Gutxi eman dezake, baina bi minutu, webgune batean, asko da. Hurbiltzen zaigun jende horrek gero eta eduki gehiago kontsumitzen ditu, hau da, ez dator bisita bakarrean, ez du albiste bakarra irakurtzen. Geratu egiten da, eta bi-hiru albiste irakurtzen ditu".

"Errebote" tasa ere puntu bat murriztu da, 2019an, 64,8tik 63,6ra pasatu baita, eta bisita bakoitzeko ikusitako orrialde tasa ere apur bat hobetu da: 2,13tik 2,21era igo da.

"Nola iristen gara askotan webguneetara? Bada, Facebooken lotura bat ikusi dugulako, adibidez. Gainera, sartzen gara, argazkia ikusten dugu eta


ateratzen gara. Horregatik, 3 segundo baino gutxiago irauten duten bisitei "errebotea" deitzen zaie. "Errebote" tasa zenbat eta baxuago izan, orduan eta hobeto. Webgune arruntetan, normalean, %70ekoa izaten da tasa hori. Gure kasuan, 2019an, %63,6koa izan zen, puntu bat gutxiagokoa 2018koa baino", azaldu digu Rojasek.

Laburbilduz, datuak oso onak dira: **2019an, 2018an baino %35 gehiago izan dira toki komunikabideetara hurbildu diren erabiltzaileak, haietako bakoitzak orrialde gehiago irakurri ditu, eta denbora gehiago pasatu du webgune horietan.**



Datuak. Webguneek 36 milioi orrialde baino gehiago erakutsi zituzten eta bisiten batz besteko iraupena 122 segundokoa izan zen.

GEHIEN LANDUTAKO GAIAK



▲ Plataformako guneetan behintzat, Gizartea, Kultura eta Kirola izan ziren eduki gehien izandako atalak.

AMEZTI.EUS ERE, ONGI, 2019AN:

2017ko udan jaio zen amezti.eus. Pulunpe eta Esan Erran irratiarekin batera, eskualdeko informazioa biltzen dugu bertan, era digitaletan. Ultzama aldeko albisteak, kultur agenda osorik, eta Egun Ero irratsaioko audioak aurkitu ditzakezue bertan. Hemen, 2019ko datuak:

Erabiltzaileak:

12.000 (%187ko igoera)

Bisitak:

33.000 (%190eko igoera)

Errebote tasa:

%69 (%2 gutxiagokoa 2018an baino)

Bisiten iraupena:

1'44" (%4,5eko jaitsiera)



Luzia Goñi Aizarozko bertsolaria hil da

Martxoaren 22an zendu zen Luzia Goñi Ollas, 91 urte zituela. Azken urteetan Tirapun bizi izan da, bertan baitu alabak landa etxea. Abenduan beste 13 emakumerekin batera omendua izan zen Luzia Goñi, bere bertsoengatik Baditun 14 egitasmoan. Eta, omenaldia aitzaki, Tirapun hartu gintuen, hain zuzen ere, urtarrilean; 193. Pulunpen irakurri daiteke erreportajea (<https://amezti.eus/prentsa/68>) eta honako estekan entzun Esan Erran irratarako egindakoa: <https://amezti.eus/basaburua/1579517958962-hemen-baditun-14-erakusketako-luzia-goniren-txanda-gaurko-egun-eron>.

Aizarotzen jaio zen Luzia, duela 91 urte, baina Gartzarona joan behar izan zuen familiak, berak azaltzen duenez, aberats batek Aizarotz erosi ondoren. Koxkortu zenean Gipuzkoa aldera lanean hasi eta bertan ezkondu zen. Denetariko lanak izan


ditu, taloak egitea haien artean, ia 20 urtez izan baitzen herriz herri taloak egiten eta saltzen. Eta taloekin batera, bertsotan ere hasi zen garai haietan.

Gai sozialak landu zituen, protesta bertsoak, baina baita barne sentimenduei buruzkoak ere, jaioterriaz eta aspaldiko garaietako oroitzapenez hitz egiten zuten. "Bihotzetik ateratzen direnak dira nire bertsoak", esana zuen. Oparoa da bere sorkuntza, eta atzoko eta gaurko askotariko gai eta gertakarien kronika ederrak dira haren lanak. Bat-batean ez zen sekula aritu, baina uzta ederra utzi zuen bertso idatzietan.

2017an egin zion aitortza Nafarroako Bertsozale Elkartek, urte hartako Nafarroako Bertsolari Txapelketan irabazleari txapela jartzeko aukera emanaz. Hain zuzen ere, Julio Sotori jantzi zion txapela, 2017ko apirilaren 8an, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.



Luzia Gofii Ollas ▲



Mikel P. Ansa,
Berria

Gerraren klisea
2020ko martxoak 21

Igoako ostatua utzi eta Gerendiaingoa hartu du Javier Lledók

Martxoaren 1 an ireki zituzten azkenezko Igoako Ostatuako ateak Javier Lledók eta bere lankideek. Izan ere, ostatu hori utzi berri dute eta Ultzamara mugitu dira orain: Gerendiaingo Ostatua ireki dute. "Gerendiaingo Ostatua libre gelditu zela jakinarazi ziguten, eta Igoan lan gehiegirik gabe genbiltzanez azkenean mugitzea erabaki genuen", dio Lledók.

Asteburuetan ostatuak ongi funtzionatzen zuela baina astean zehar oso lan gutxi izaten zutela azaldu digu ostalariak. Ostatua uztea erabaki baino lehen astean zehar goizetan istea proposatu omen zuten, baina ez zieten proposamena onartu, eta aukera berri hau atera denean uztea erabaki dute azkenean. "Herritarrei hasieran kostatu zitzairen gure erabakia ulertzea, baina beno, denborarekin ulertu dute eta ongi bukatu dugu jendearekin". Igoakoa uzteak pena eman dietela dio.



▲ Igoako Ostatua

Oraingoz itxita gelditu da, beraz, Igoako Ostatua. Koronabirusak eragindako egoera pasatu eta gero berriz ere lehiaketara aterako dutela pentsatzen du Lledók. Krisi egoera honek Gerendiaingoa ireki berritan harrapatu ditu, eta hasiera zaildu badie ere, normaltasuna itzultzean jo eta ke lanean jartzea espero dute berriz ere. "Hemen, Gerendiainen, eguneko menuarekin lan asko egiten da, eta asteburuetan ere mugimendu handia egoten da. Igoako antzeko martxarekn jarraituko dugu, baina zerbitzu zertxobait hobearrekin, hemen kubertaria eta tresnak berriagoak dira eta".



▲ Gerendiaingo Ostatua

Aurrena Espainiako presidentek aipatu zuen, gero Frantziakoak, eta atzetik, Portugalgoak: «Gerra». Munduko agintariak koronabirusaren etorrerarekin zeinen galduta dauden erakusten du terminologiak. Nork erabaki du honi gerra deitzea? Zergatik? Herritarren hiztegiaren ere ari dira hedatzen halakoak: heroiak, lehen lerroa... Militarrek ere agertu dira, salbuespen egoera bat indarrean egonik beren protagonismoa nolabait bilatu nahian, beren hiztegi oldarkorrek.

Baina hau ez da gerra bat. Eta, gerraren klise hori erabiliz atxikimendu patriotikorako dei itsuak egin beharrean, agintariak hobe lukete baliabideak jarriko balituzte. Gaurko BERRIAN agertzen dira (fronteko) lehen lerro horretan ari diren heroi batzuk. Haserre daude. Behin bakarrik erabil litezkeen maskarak berrerabiltzera behartzen ari zaizkie, amaitzen ari direlako. Zabor poltsekin babesten ari dira soinak, mantal iragazgaitzik ez dagoelako. Ez direlako testak egiten —Atharratzeko kasuen kontrol falta salatu du mediku batek—. Garbitzaileak, garraiolariak, dendariak... armarik gabe igorri dituzte lehen lerroa. «Gaixotzera bidaltzen gaituzte», salatu dute BERRIAN lekukotza eman duten osagileek.

Egia da krisi hau kudeatzea zeharo zaila dela. Deskontrolatua dabil. Inor gutxik esperoko zuen horren azkar hainbesteko beharrak sortzea. Nola produzitu milioika maskara eta amantal kolpetik? Bada, gerratan lantegiak errequisatu eta nazionalizatzen ziren, armak produzitzeko.



Baserriko Plaza: konfinamenduan ere, baserriko produktuak herritarren esku

Harrigarria badirudi ere, informatika enpresa batean sortu zen ideia. Freedoo software libreko informatika enpresatik, hain zuzen ere: webgune bat sortzea bururatu zitzairen, koronabirusak azoka gehienak bertan behera utzi dituen honetan, Euskal Herriko txoko guztietako baserritarrek produktuak herritarren esku jartzeko. EH kolektiboko baserritarrekin partekatu zuten eta horrela jarri dute martxan, beste erakunde batzuen laguntzarekin.

Aner Garitaonandia, Atxondoko Biezko baserrikoa: "‘baina ni ez naiz EH kolektiboaren parte’ esaten digute askok, eta argi utzi nahi dugu: ez du inporta, baserri guztiak daude gonbidatuta, ahalik eta gehien parte hartzea nahi dugu. Euskal Herriko txoko guztietara iritsi nahi baitugu".

Covid-19ak sortutako krisiari erantzuteko tresna izan nahi du Baserriko Plaza. Egoerak tokiko baserriar eta ekoizleek elikagaiak saltzeko eta herritarrok horiek eskuratzeko zailtasun handiak sortu ditu, eta horri egin nahi diote aurre. "Azokak itxi dituzte. Baratzetan neguko produktuak gutxitzen hasi dira, ez ditugu nahiko, eta horiek saltzeko dugun irtenbide bakarra herriko azokak dira. Beraz, momentu hauetan ez dugu haiek irteteko modurik eta diru-sarrerarik gabe gaude", azaldu digu Aner Garitonandiak.

Supermerkatuak irekita jarraitzen dute, oinarriko produktuak saltzen dituztelako, Garitonandiaren ustez, ez du zentzurik azokak, argudio berarekin, ez irekitzeak: "guk trazabilitate guztia bermatzen dugu, hau da, nire produktuak nire eskutik bakarrik pasatzen dira. Eskularruak erabilia eta distantzia segurua jarrita, zergatik ez ditugu azokak irekitzen?".

Webgunea sortuta, baserriko plaza.eus, orain, ahalik eta ekoizle gehien batu nahi dute, aipatu bezala, Euskal Herriko herritar guztiengana iristeko. Horretarako baserritarrak harremanetan jartzeko animatzen dituzte baserriko plaza@gmail.com helbidera idatziz edo 688 86 70 20 zenbakira deituz. Ondoren, logistika nola antolatu pentsatu behar dute: produktuak denda edo leku jakin batean uztea, adibidez.



**BASERRIKO
PLAZA**.eus





Eskualdean lehen sektorea bultzatzeko lehen urratsak

Cederna Garalur landa garapenerako agentziarekin elkarlanean lehen sektorea bultzatzeko proiektua sortzen ari dira Nafarroako Mendialdeko hainbat eskualde. Gure zonaldeko zenbait Udalek ere bat egin dute egitasmoarekin, esate baterako, Imotzek, Basaburuak eta Atetzek.



Atezko saioa ▲



Lehen sektorea eta bertako produktua bultzatzea du helburu proiektuak ▲



Basaburuan ▲

Proiektuaren hastapenetan daude oraindik, baina gure eskualdean martxoaren hasieran egin dira herritarrekin eta ekoizleekin lehen bilerak, eta erantzun oso ona izan dutela jakinarazi digute. Herritar, ekoizle, elkarte nahiz instituzioak bildu nahi dituzte, guztien artean lehen sektorea eta bertako produktua bultzatzeko plana josten hasteko. Aurreko hilabeteetan eskualdeko nekazari eta abeltzainei inkestak pasatu zizkieten sektorearen egoeraren berri jasotzeko, eta plana hortik abiatuta egitea dute asmo.

Basaburuko Udalak zabalduko oharrean azaltzen zuenez, ondokoak dira egitasmoaren helburuak: bertako produktua bultzatu eta balioa ematea, bestelako ekoizpen eta kontsumo ereduak sustatzea, eraldaketa prozesuari indarra ematea, zuzeneko eta zirkuitu motzeko salmentak lehenestea, eskualde mailan gainontzeko sektoreekin sareak sortzea eta zonaldeko ekoizleen artean talde-lana sustatzea.



Imotzen ▲

Martxo hasierako bilerak lehen hartu-emana izan dira, eta hilean zehar bilera gehiago egitea eta plana zehazten joatea zuten helburu Udalek eta Cederna Garalurrek. Baina koronabirusaren krisia dela eta, azkenean saio guztiak atzeratu egin behar izan dituzte. Egoerak pixkanaka normaltasunera egiten duen heinean joanen gara egitasmo honen berri ere ematen.



Aplikazio berria sortu du Arroza Sareak

Arroza Sarea osatzen duten 23 irratiak zuzenean mugikorretik entzuteko aukera emanen du aplikazio berriak. Androiderako eta IOSerako prestatu dute, eta martxo bukaera alderako martxan izatea aurrikusten dute. "Garai onean dator aplikazioa, jakin izan bagenu aste pare bat lehenago ateratzen ere saiatu izan ginen", zioen Ion Etxebarria sareko kideak Esan Erranen egindako elkarrizketan, koronabirusaren itxialdiari erreferentzia eginez.

2001ean sortu zen Arroza Sarea, Arrosan (Nafarroa Beherea) ospatu zen Euskal Herria Zuzenean jaialdi batean. Euskal Herri osoko ezaugarri ezberdinetako 23 irrati osatzen dute gaur egun sarea: tartean badira irrati libreak, udal irrati txikiak, eskualde mailakoak nahiz Euskal Herri osokoak. Esan Erran irrati ere sareko kide da, eta bertatik hartzen ditugu gure programazioa osatzeko hainbat eduki eta irratsaio. "Aniztasuna da gure ezaugarri nagusia: bai eduki aldetik, langile kopuru aldetik, irrati ixaera aldetik...", zioen Etxebarriak. Sareak badu bere ekoizpen propioa ere: astelehenetik ostiralera 16:00etatik 18:00tara emititzen den Zebrabidea magazina.

Aplikazioa zuzenean mugikorretan instalatu, eta mugitu Euskal Herriko uhin batetik bestera klik bakar batekin! Informazio guztia, irrati podcastak eta gehiago arrosasarea.eus webgunean aurki dezakezue.

www.arrosasarea.eus



Euskal Herriko jardunaldi feministetan, zuzeneko berezia egin zuen Arroza Sareak ▲

Kirol jarduerak ere, bertan behera Koronabirusaren krisia dela eta

Errugbi gaupasa atzeratu duten moduan, asko izan dira bertan behera gelditu diren ekimenak. Eskualdeko agenda geldirik da momentu hauetan, eta baita, noski, kirol jarduerak ere.

Martxoaren 19an Aspek Ultzaman antolatutako aurrekanporaketa jokatu behar zuten. Rezusta eta Peio Etxeberria lehiatzekoak ziren Larraintzarko pilotalekuan, eta partida suspenditzea erabaki zuen enpresak, aste bat lehenago.

Eskualdean ez, baina Gopegin (Araban) Euskal Herriko Mus Txapelketako finala jokatzen zen martxoaren 14an, larunbatarekin. Bertan lehiatzeko sailkatu zen Patxi Etxeberria eta Eneko Berasain bikote irazoztarra, Nafarroa Garaiko txapelkunordeak. Itxoin beharko dute finala atzeratu baitute. Momentuz ez dugu data berririk.

Noski, gauza bera gertatu da paleta goma eta frontenis txapelketarekin. Martxoaren 20an eta 21ean finalurrekoak jokatzen hitzordua zuten, eta martxoaren 28an izan behar zuten finalak. Ez da horrela izanen eta, beraz, kasu honetan ere, data berriaren zain geldituko gara.



Martxoaren 9an jokatu ziren paleta gomako eta fronteniseko azken partidak. Finalarrekoak eta finala atzeratu dira. ▲

Errugbi gaupasa ere, bertan behera

Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri baino lehen, BRT menditarrak errugbi taldeak gaupasa bertan behera uztea erabaki zuen. Nafarroako Gobernuak Covid-19 gaixotasunaren edo Koronabirusaren zabalkuntza ekiditeko eskolak ixtear zegoela hartu zuten erabakia. Ziurtasunez jokatu nahi izan dute eta, horregatik, udazkenara atzeratu dute gaupasa.

Martxoaren 28an, Larraintzarren, ospatzekoa zen, eta, horregatik, partaideei ulermena eta laguntza eskatu diete, eta, halaber, lankidetzeta eta erantzukizuna herritarrei: "neurri egokiak har ditzaten (ahal duten neurrian) Covid-19 birusaren hedapena saihesteko baterako lan horri aurre egiteko".

BRT errugbi taldearendako finantzaketa iturri ezinbestekoa izan ohi da errugbi gaupasa, horregatik, denboraldi honi aurre egiteko bestelako iturriak bilatzeko eta indartzeko lanean jarriko dira, bidalitako oharran aipatu bezala: "etorkizuneko kanpainetan (bazkideak erakartzea, merchandisinga...) parte hartzera edo laguntzera animatzen zaituztegu". Esate baterako, bazkide kanpaina martxoaren bukaera arte luzatu zuten, eta etorriko dira gehiago.

Errugbi gaupasako afarirako sarreraren dirua berreskuratzeko, telefonoz, 630 575 822 zenbakian edo zuen herrietako antolatzaileekin hitz egin.

RUGBY GAUPASA 2020 MARTXOAK 28
21:30 ZIKIRO AFARIA +KANTUZAHAR
ATZERATUTA APLAZADO
+DJ KIRIKI
300€
ZUZKETA
BRT, divertis, and other logos at the bottom.

gaupasa atzeratua ▲



Zurezko Tallak

— ESKUZ EGINDAKOAK —

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

— MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU] —

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@ymail.com

**UDALEKUAK EUSKARAZ
CAMPAMENTOS DE VERANO
EN EUSKERA**

Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

2020



Zure udal/mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskaraz antolatzen diren udalekuen bilduma hau egin du, gure inguruan dagoen eskaintza zabal honetatik aukera dezazun.

Galdetu zure EUSKARA ZERBITZUAN udaleku hauetarako dagoen diru-laguntzari buruz.

LH

DBH



Belaunaldi berrien aukera

www.era.eus



ENTITATEAREN IZENA	UDALEKUAREN IZENA	LEKUA	ADINA	DATAK	PREZIOA
AUSARTU KULTUR ELKARTEA LH DBH	HATSARTU UDAKO EGONALDIAK	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	11-12 urte 13-17 urte	Uztailak 5-11 Uztailak 12-18	190€ <i>(prezio bereziak anaiarrebentzat: 2.gaztea 170€, 3.gaztea 150€)</i>
	IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK Martxoaren 13tik plazak bete arte / ausartukulturrelkartea@gmail.com / www.ausartu.eus				
BARATZE BASERRI ESKOLA LH DBH	BARATZEKO KANPUSAK	Gautegiz Arteaga (Bizkaia)	6-14 urte	Ekainak 22-26	260 €
				Uztailak 1-10	520 €
				Uztailak 11-20	520 €
				Uztailak 21-30	520 €
				Irailak 1-5	180 €
IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK Izen-emate epea irekita plazak amaitu arte / 946 255 606 / baratze@baratze.com / www.baratze.eus/eu/udalekuak-2020/					
BASABERE BASERRI ESKOLA LH	BASABERE + BELARRETAN	Lezaun (Nafarroa)	7-10 urte	Ekainak 29 - uztailak 5	340 €
	BASABERE DANTZA		7-12 urte	Ekainak 24-28	
	BASABERE + ERBINUDE		8-12 urte	Abuztuak 3-7	260 €
	IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK Izen-emate epea irekita plazak amaitu arte / 677 157 605 / info@basabere.com / www.basabere.com				
BAZTAN BIDASOA TURISMOA LH DBH	EUSKARAZ BLAI	Arantza eta Beintza-Labaien (Nafarroa)	8-15 urte	6 txanda (7 egun) Ekainak 21 - abuztuak 8	270 €
		Beintza Labaien - Arantza - Aritxulegi	14-17 urte	2 txanda (7 egun) Abuztuak 2-22	285 €
		IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK Izen-emate epea irekita plazak amaitu arte / 948 592 323 / 622 728 984 / info@euskarazblaiudalekuak.com / www.euskarazblaiudalekuak.com			
BERTSOZALE ELKARTEA LH DBH	BERTSO UDALEKUAK	Zuhatza (Araba)	9-11 urte	Uztailak 27-31	180 €
		Zugarramurdi (Nafarroa)	12-13 urte	Uztailak 3-9	300 €
		Uitzí (Nafarroa)	13-14 urte	Uztailak 10-19	360 €
		Orio (Gipuzkoa)	15-16 urte	Uztailak 2-11	
		Sopela (Bizkaia)	17-18 urte	Uztailak 21-30	
IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK Bazkideak: martxoaren 3tik 16ra / Ez bazkideak: martxoaren 18tik 30era / 943 694 129 / www.bertsozale.eus					
BERTIZ KULTUR ZERBITZUAK (BKZ) LH DBH	MULTIABENTURA UDALEKUAK	Baztan eta Bertizarana (Nafarroa)	7-11 urte 12-15 urte	12 txanda (6 egun) Ekainak 21 - abuztuak 28	305 €
IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK Izen-emate epea irekita plazak amaitu arte / 948 592 322 / 659 081 431 / info@navarraaventura.com / www.navarraaventura.com					

ENTITATEAREN IZENA EMPRESA	UDALEKUAREN IZENA NOMBRE DEL CAMPAMENTO	LEKUA LUGAR	ADINA EDAD	DATAK FECHAS	PREZIOA PRECIO	
DINDAIA	UDAN HONDARTZARA!	Orio (Gipuzkoa)	6-9 urte	Ekainak 22-26	190 €	
			7-10 urte	Abuztuak 17-26		
	LH DBH	UDAN HONDARTZARA IBLTARIA!	Zarautz eta Orio (Gipuzkoa)	10-12 urte	Ekainak 22-27	220 €
		UR EKINTZAK ZUHATZAKO IRLAN!	Zuhatza (Araba)	9-12 urte	Abuztuak 3-18 (5 gau, 3 txanda)	220 €
			12-14 urte	Abuztuak 18-24	255 €	
IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK						
Martxoaren 30etik apirilaren 27ra (plazak bete arte) / 650 75 84 54 / info@dindaia.eus / www.dindaia.eus						
EUSKAL UDALEKUAK	EUSKAL UDALEKUAK	Bernedo (Araba)	11-12 urte	Uztailak 1-15	155€ eta 255€ bitarte	
			9-10 urte	Uztailak 15-23		
			9-10 urte	Uztailak 23-31		
			6-8 urte	Uztailak 31 - abuztuak 8		
		Goñi (Nafarroa)	6-8 urte	Uztailak 8-17		
			11-12 urte	Uztailak 17-30		
			9-10 urte	Uztailak 30 - abuztuak 8		
		Abaigar (Nafarroa)	11-12 urte	Uztailak 29 - abuztuak 12		
			15-17 urte	Uztailak 1-15		
		Bernedo (Araba)	13-15 urte	Abuztuak 8-23		275 €
IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK						
Izen-emate epea irekita plazak amaitu arte / 945 107 314 / 678 011 708 / udalekuak@udalekuak.eus / www.udalekuak.eus						
IKASTOLEN ELKARTEA	EUSKARA MUGARA	Lapuebla de Labarca (Araba)	8-12 urte	3 txanda (7egun) Ekainak 28 - uztailak 18	Ikastolen elkarteko ikasleak: 245€ Gainerakoak: 280€	
	MENDIA ETA PILOTA UDALEKUAK	Lapuebla de Labarca (Araba)	7-12 urte	Ekainak 21-26	Ikastolen elkarteko ikasleak: 240€ Gainerakoak: 265€	
	SURF UDALEKUAK	Sopela (Bizkaia)	10-12 urte	Ekainak 28 - uztailak 4	Ikastolen elkarteko ikasleak: 400€ Gainerakoak: 435€	
	ITSASOIA ETA KULTURA UDALEKUAK	Lekeitio (Bizkaia)	10-12 urte	Ekainak 27 - uztailak 4	Ikastolen elkarteko ikasleak: 365€ Gainerakoak: 385€	
	GAZTE EGONALDIAK	Allo (Nafarroa)	10-12 urte	Uztailak 5-11	Ikastolen elkarteko ikasleak: 255€ Gainerakoak: 290€	
			12-14 urte	2 txanda (7 egun) Ekainak 28 - uztailak 18	Ikastolen elkarteko ikasleak: 255€ Gainerakoak: 290€	
	SURF UDALEKUAK	Sopela (Bizkaia)	12-14 urte	2 txanda (7 egun) Ekainak 21 - uztailak 11	Ikastolen elkarteko ikasleak: 400€ Gainerakoak: 435€	
	IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK					
Martxoaren 2tik maiatzaren 8ra / 943 369 637 / aisialdia@ehi.ikastola.eus / www.aisialdia.eus / www.ikastola.eus						
IRRISARRI LAND: BASAJAUN UDALEKUAK EUSKARAZ	MULTIEKINTZA	Igantzi (Nafarroa)	7-13 urte	9 txanda (6 egun) Ekainak 21 - abuztuak 21	290€ eta 335€ bitarte	
	BIKE		12-13 urte	4 txanda (6 egun) Ekainak 28 - uztailak 24		
	DISC-GOLF		14-16 urte	2 txanda (6 egun) Uztailak 26 - abuztuak 7		
	CHEF					
	HIRIKO DANTZAK					
IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK						
Izen-emate epea irekita plazak amaitu arte / 948 928 922 / 620 379 642 / udalekuak@irrisarriand.es / www.irrisarriand.eus/udalekuak						
MUGITU ABENTURA	ABENTURA KANPALDIAK	Urbasako kanpina (Nafarroa)	6-12 urte	5 eguneko 4 txanda Ekainak 22-Abuztuak 21	289 €	
	IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK					
Izen-emate epea irekita plazak amaitu arte / 602 539 621 / campamentos@mugitu.net/www.mugitu.net						
SASTARRAIN BASERRI ESKOLA	BASERRIA	Zestoa (Gipuzkoa)	8-12 urte 12-16 urte	7 eguneko txandak Ekainak 29 - Abuztuak 30	322€ (Deskontuak anai-arrebei) 336€ (Deskontuak anai-arrebei)	
	IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK					
Izen-emate epea irekita plazak amaitu arte / 943 148 239 / sastarrain@sastarrain.com / www.sastarrain.com						
TXATXILIPURDI ELKARTEA	GOIZUETA	Goizueta (Nafarroa)	9-12 urte	Uztailak 4-11	300 €	
	ZINGIRA-ORIO	Orio (Gipuzkoa)	12-14 urte	Ekainak 28 - uztailak 7		
	OZAETA	Ozateta (Garaio, Araba)	12-14 urte	Uztailak 5-14		
	KOSTA ALA KOSTA	Ibiltaria (Arabatik Gipuzkoako kostara)	14-16 urte	Uztailak 3-14		
	IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK					
Martxoaren 16etik maiatzaren 8ra / 943 795 446 / www.txatxilipurdi.eus / @udalekuitxiak.tx (instagram)						
TXIRIBUELTA ELKARTEA	ARRITXULO UDALEKUAK	Oiartzun (Gipuzkoa)	8-12 urte	6 txanda (7 egun) Ekainak 22 - abuztuak 2	275 €	
	IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK					
Martxoaren 2etik ekainaren 5era / 636 99 46 88 / udalekuakarritxulo@gmail.com / www.txiribuelta.org						
URTXINTXA	PIRATA UDALEKUAK	Pasai Donibane (Gipuzkoa)	7-12 urte	7 txanda (6 egun) Ekainak 29 - abuztuak 15	270,50€ (anai-arrebak 245€)	
	IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK					
Martxoaren 16tik aurrera / 943 270 033 / idazkaritza@urtxintxa.eus / www.urtxintxa.eus						
AEK LH DBH	FAMILIA BARNETEGIAK	Forua (Bizkaia) eta Arantza (Nafarroa)	4-12 urte eta helduak	Uztailak 6-17	Helduak: 488€ Haurrak: 305€	
				Uztailak 20-31		
				Abuztuak 3-14		
IZEN-EMATEAK-ARGIBIDEAK						
Apirilaren 1etik aurrera / 946 464 000 / 673 200 100 / udabarnetegiak@ae.eus / www.ae.eus						

Herritarren bizia goitik behera aldatu du koronabirusak

Inork gutxi espero zuen duela aste batzuk Txinan zabaldua zegoen gaixotasun hura horrelako indarrarekin iritsiko zenik gurera eta izaten ari den ondorioak eragingo zizkigula gure bizitzetan. Espainiako estatuan alarma egoera izendatu zuten martxoaren 15an, hasiera batean hamalau egunetarako, baina momentuz apirilaren 11a arte luzatu dutena.

Zer esan nahi duen alarma egoeran egoteak? Bada, pertsonen etxeetako konfinamendu egoera ezarri dela: lanera joateko, premiazko elikagai eta produktuak eskuratzeko, osasun zentroetara, farmazietara edo bankuetara joateko, menpekotasun egoeran dagoen norbaiti laguntzera joateko edo etxeke animaliak ateratzeko ez bada, etxeetan sartuta egon behar dute herritarrek. Neurriok errespetatzen ez dituztenek isunak jasotzeko arriskua izanen dute, gainera.

Ultzamaldean zer?

Gure eskualdean ere ongi nabaritu ditugu koronabirusaren hedapena ekiditeko hartu diren neurriak. Esaterako, eskualdeko eskola guztiak itxita daude, eta ikasleek etxetik jarraitu beharko dute heldu diren asteetan ikasketa prozesuarekin. Honela mintzatu zen Kepa Mateorena Jauntsarasko Oihanzabal eskolako zuzendaria Esan Erranen martxoaren 16an:

“Oso arraroa ari da izaten guzti hau. Pentsatu, eskola irekita dago, zuzendaritzakoak soilik gaude hemen, baina eskola hutsik dago, eta triste da hau, faltan sumatzen da ikasleen energia”. Eskolek irekita jarraituko dute printzipioz, eta edozein zalantza argitzeko telefonoz deitu dezakete ikasle nahiz gurasoek.


Eskualdeko udal guztiak ere neurri zorrotzak hartu dituzte koronabirusaren hedapena ekiditeko: udal instalazio publiko guztiak itxita egonen dira egoerak hobera egin arte, eta bulegoetako arreta zerbitzuak telefonoz eta posta elektronikoz soilik dituzte martxan.

Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ere jarraitzen du bere zerbitzuak ahal den neurrian eskaintzen, eta bulegoko ordutegiak lehengo bera izaten jarraitzen du. Dena den, bertara bakarrik behar-beharrezkoa denean joatea eskatu

dute, eta aurrez telefonoz deitzea. Urgentziazkoak ez diren kasuetan, telefono edo e-mail bidezko arreta egiten dute.

Berdintasun alorretik gogorarazi dute, gainera, genero indarkeria jasaten dutenek betiko arreta zerbitzuetara jo dezaketela: Ultzama aldeko Gizarte zerbitzuetara deituz, genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko lantaldera joz (948 00 49 52 eto 948 00 49 53 telefonoen bidez edo eaiv.comarca@pauma.es helbidera idatziz), eta informazio eta aholkularitza juridikorako betiko 016 telefonoa ere martxan dagoela.

Taberna eta jatetxe guztiak ere itxita daude eskualdean, baina dendek eta farmaziek irekita jarraitzen dute herritarrei oinarrizko produktuak eskaintzeko. Hori bai, ordutegi murriztuekin ari dira horietako asko. Bestetik, eskualdeko agendako ekitaldi guztiak ere bertan behera gelditu dira.



Nafarroako ospitalea ▲



▲ Egoera zaugarrian daudenek Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete



▲ Prebentziorako gomendioak

OSASUN GOMENDIOAK

Nafarroako Gobernuak coronavirus.navarra.es/eu/ webgunean bildu du koronabirusaren gaineko informazio guztia, baita osasun gomendioak ere. Honela diote bertan:

ZER EGIN SINTOMAK IZANEZ GERO?

Sukarra, eztula edo arnasteko zailtasunak badituzu:

- Gelditu etxean

- Deitu zure osasun-zentroa.

Zure osasun-zentroaren ordutegitik kanpo zalantzarik baduzu, deitu Osasun Aholkuaren 24 orduko zerbitzura: 948 290 290. Egoera larrietan, 112 telefonora.

Koronabirusaren prebentziorako gomendioak

Sarri garbitu eskuak urarekin eta xaboiarekin

- Mukiak kendu edo doministiku edo eztul egin ondoren
- Gaixo dagoen norbait artatu aurretik eta ondoren
- Komunera joan ondoren
- Elikagaiak jan edo manipulatu aurretik
- Animaliekin kontaktua izan ondoren
- Esku zikinak dituzun guztietan

Eztul edo doministiku egitean ahoa estali besaurrearekin edo mukizapiarekin

Botatzeko mukizapiak erabili, eta erabili ondoren zakarrontzira bota

BERROGEIALDIA PASATZEKO EUSKARAZKO ZENBAIT DENBORA-PASA

- Esan Erran irratia, FM-ko 107.9an edo amezti.eus/irratia/ zuzeneko link-ean
- Arrosa sareko irratien podcastak: arrosasarea.eus webgunean
- Argia.eus-eko multimedia kanala
- Berria.eus-eko Berria Aretoa
- ...eta askoz gehiago: guztiak bildu ditu UEMAK Etxean goxo egoteko baliabideen zerrenda izeneko gidan. Uema.eus-en duzue gida eskuragarri!







Errebueltak

Ekaitz Astiz 'ZKH' irazioztarraren maketa berria

Gazteako maketa lehiaketara aurkeztu du Ekaitz Astiz rapero ultzamarrak 'Errebueltak' maketa berria. Hiru kanta jasotzen ditu lehen maketa honek: '22', '30ak hiltzen' eta 'Zurekin'. Gaztearen webgunean daude hiru abestiak entzungai. Martxoaren 18an zen bozkatzeko fasea hastekoa, baina koronabirusa dela eta hori ere atzeratu egin dute.

Baziren zenbait hilabete Ekaitz Astiz Iraizozko raperoak aurkeztu berri dituen abesti horiek grabatu eta prest zituela. Bere Facebook kontuan azaldu zuenez, ez zen bere asmoa hasiera batean lehiaketara aurkeztea; baina, azkenean, "gogoak pazientziari irabazi" zion. Esan Erran irratian egin genion elkarrizketan azaldu zigunez, hiru abestiko beste maketa bat ere prestatzen ari da orain, eta baita atera dituen abestiekin bideoklipak ere.

Goienetxe Anaiak rap taldeko partaide izan zen aurretik Astiz, baina azken urteetan ez genuen bere jardun musikalaren berri handiegirik izan. "Egon naiz gauzak egiten denbora honetan, baditut kanta mordoxka bat

etxean grabatuak eta gordeak. Nolabait, ibernatzen egon naiz" zioen, erdi barrez.

EUSKARAZ RAPEATZEKO ESKUBIDEA ETA PLAZERA

Erdaraz rapeatzeko kapaz izan arren, beti euskaraz sortu du Astizek, eta aldatzeko inongo asmorik ere ez duela dio. "Ez zait burutik pasatu ere egiten, nire apustua hori da, baina gainera ez dut apustu bezala soilik ikusten. Nirekiko traizioa izango litzateke bestela egitea", zioen.

Doinu aldetik, rap musika egiten jarraitzen du Astizek, baina lan berriak ukitu elektroniko batzuk ere badituela dio... "Estilo aldetik esanen nuke aurrekoak baino komertzialagoa edo dela, pop-era

“ Ez zait burutik pasatu ere egiten erdaraz rapeatzea, nirekiko traizioa izango litzateke ”

pixka bat tiratu dudala". Gauza eta soinu berriak frogatzeko gogoz dator Iraizozko gaztea, izan ere, hurrengo maketarako abestietan reggaetoi doinuak ere entzunen direla aurreratu digu: "Gustatzen zait raparen barruan batetik bestera mugitzea, ez beti estilo berean gelditzea, norberaren konfort zona deitzen den horretatik ateratzea".

Letrei dagokionez, gai ezberdinak dituzte aurkeztutako hiru abestiek: '22' abestia apustuen inguruko kanta bat da, Labrit pilotalekuan kokatua. '30ak hiltzen' abestian, berriz, izenburuak argi uzten duen bezala, adinaz ari da Astiz: "30ak hiltzen diot abestian, eta, pentsa, sarri 32 beteko ditut!", zioen barrez. Azkenik, 'Zurekin', maitasun abesti bat da, baina ez oso maitasun abesti konbentzionala... Nori, edo hobeki esanda zeri abesten dion jakin nahi duzuela? Bada, entzun maketa, eta deskubritu zuek!



Goienetxe Anaiak taldean aritu zen aurretik Ekaitz Astiz ▲



Jolaskide

Oso aberatsa izan da. Handiek txikiak lagundu dituzte eta zenbait herritako umeak elkarrekin ibili dira

Urtarriletik martxora Jolaskide ekimena abian izan da Atetzen. Eritzeko bizilaguna den Goizargi Santxo bidelagun zutela, 17 umeek hartu dute parte. Espero zituzten baino askoz gehiago izan dira. Igande arratsaldero bildu dira udaletxean, jolas librean aritzeko eta helburu nagusi batekin: neguko igande arratsaldeetan hotzetik babesteko gune bat izatea, euskara eta jolasa bultzatu bitartean.

• ZENBATEK HARTU DUTE PARTE?

17 umeek eman dute izena, lau eta 12 urte bitartekoek. Igandero ez gara guztiak elkartu, hori egia da, batez ere eguraldiarengatik, oso eguraldi ona egin duelako. Berez, urtarrilean eta otsailean egitea erabaki genuen neguko igande arratsalde hotzetan pentsatuta, baina, askotan, egin duen eguraldi onarengatik jendea kanpoan izan da. Baina, hala ere, igandero bildu gara taldetxo bat, bai.

• HOTZARI AURRE EGITEAZ GAIN, ZER HELBURUREKIN ANTOLATU DUZUE?

Bi helburu nagusi izan dira: bata, haien bat-bateko eta eguneroko harremanetan euskara bultzatzea; eta, bestea, bailara eta eskualdeko umeek elkarrekin egoteko gune bat izatea, espazio itxi batean eta jolasak erabiltzeko aukera zuten bitartean.



Mozorroen txokoa zen lau txokoetako bat

• JOLAS LIBREA ERE BULTZATU DUZUE, EZ AL DA HORRELA?

Bai. Lau txoko proposatu ditugu: batean mozorrotzeko materiala jarri dugu, oihalak eta horrelakoak; beste batean, liburutegia; hirugarren batean, mahai-jolasak; eta laugarrenean, eraikuntza jolasak. Bi arau besterik ez ditugu izan: euskaraz hitz egitea eta materiala, erabili ondoren, biltzea. Hortik aurrera saioaren bukaera arte bakoitza bere kasa ibili da. Bakarka, bikoteka edo taldeka, adin askotakoak elkarrekin, nahi zuten bezala. Ni laguntzen aritu naiz, jolasak azaltzen. Oso aberatsa izan da, handiek txikiak nola lagundu dituzten,



Zenbait herritako eta adin askotariko haurrek parte hartu dute Jolaskiden.

herri ezberdinetako umeak elkarrekin ibiltzea..., nik uste dut interesgarria izan dela.

• ADIN ASKOTAKO UMEAK ELKARREKIN ARITZEA HERRI TXIKIETAN OHIKOA DA, BAINA BESTE LEKU BATZUETAN EZ DA IKUSTEN...

Hori da, eskolan bakoitza bere adinakoeekin egon behar da, eta horrekin apurtzea interesgarria dela iruditzen zaigu. Euskara ere aipatu nahi nuke: euskaraz aritzeko ohitura gutxiago zuten haurrei gehiago hurbildu natzaie, eta euskaraz egiten lagundu diet. Kalean eta eskolan erdaraz aritzeko ohitura sumatzen zaie batzuei, berehala erdarara jotzen baitute, baina asteburuan ordu eta erdiz euskaraz egitea, lagunaren artean, nik uste interesgarria dela.

• POZIK IKUSTEN ZAITUZTET EMAITZAREKIN. HELDU DEN URTEAN BERRIZ ANTOLATUKO DUZUE?

Nik uste baietz, ez baitugu baliabide askorik behar. Borondatez egin dugun ekimen bat izan da, gunea udalak utzi digu, eta aurten baditugu heldu den urterako jolasak, nahiz eta zenbait gehiago ere erosi daitezkeen. Umeek nahi baldin badute behintzat, errepikatuko dugu. Eguberrietan ikusiko dugu, azaroan Gabon gaueko antzerkia prestatzen hasiko gara, eta hor ikusiko dugu interesik baden.



Esan omen zion behin...(2)

Erran men'tzion..., esan ben'tzion...

• MANDAZAIN LOTSAGABEA

Behin benta batean suertatu omen zen mandazaina lotan. Biharamunean, goatzeko oihalak ebatsi eta zorronean gorde zituen. Baina etxekoandrea berehala ohartu zen. Eta mandazainari hots egin zion:

-Atoz, atoz, mesedez.

-Zer dugu bada?

-Zure goatzeko oihalak zuk zeuk hartuta daramazkizu.

Eta mandazain kopeta gaiztokoak bota zion maldizioa:

-Nik ez! Ni izan banaiz zure oihalak ebatsi ditudana, gaztanberan hezurrarekin ito nadila!

Ikaratuta, andreak esan omen zion:

-Ez zara zu, ez zara zu.

Komentarioa:

"Itsaso erdian ito nadila" esan beharrean, adibidez, "gaztanberaren hezurrarekin ito"? Ai, ai, mandazainaren maltzurkeria! Dena dela, honek ere norbaiti edo zerbaiti bazion beldurra!

• ARIMA ETA GORPUTZA.

Igoako Leontzio kontu kontari:

"Lenau bakik yendii nola ibiltzen zen, kamionan eta, aal zun bezala. Hau e'tzakit zer zen, gertatu zen hoi; uste'it kamioniin zela, zeatik esaten ditek Antonioaundi zela eta.

Kamionakin geldittu ta Aizaozko **Atamendiko** hoi, Martin Arretxea hoi, harren esperoan edo, kamiona hartzeko, ta ea aman'tzuun ta. Eta Antonioaundik erantzun:

-Hemen ez'ta animeik'e kaitzen.

Eta Martinek esan men'tzioken:

-Animek utzi ta, gorputzek aman'txik!"

OHARRA

Antonio Zubillaga Urtasun, **Antonioaundi** ezizenez ezagunagoa zena, Itsason jaio zen 1895ean **Labetoko bordan**. Izengoitia zergatik zuen ez dago esan beharrik. Kamioi baten jabe izan zen eta Erbitiko benta berak egin zuen. Bertan bizitu zen Zubillaga familia guzia urte aunitzez Tolosa aldera joan artio.

Martin Arretxea berriz, **Atamendiko** mutil zaharra, 1904. urtean jaioa, beti etxean bizitutakoa. Ateraldi bizkorreko gizona.

• ALKOTZEN ETXEA ERRE: GAUZAK GARAIZ EGITEA BEZALAKORIK EZ DA!

Gurasoneko Joxerekin hizketan. Don Pedro Iraizotz Landiribar, Ilarregin apez egon zenaz ari ginen hizketan. Familia honetan, apezaren arreba juxtu xamarrekoa zen.

-**Etxeberriko Itxetxikien** bizittu zen famili hoi.

-Eta apezan arreba zen Justa.

-Bai, justo. Ta bazen itxe bat **Lakarnea**, zaarra, dena zurezkoa, ta hartu zuen su ta erre zen dena, barrengoak eta denak! Ta Justai erran zioten: *Ta denak erre zaizkiote, barrengoak eta dena, itxea ta dena!*

Ta Justak:

-Aaaa! Aski zieten bezperatik atratzia, ez yittuen erreko!

Gaur egin dezakezuna ez ezazula biharko utzi. Bai horixe! Justak errana!

OHARRA: Lakarnea zen tokia orain karrika edo da. Pilotalekutik atzerago da, **Gurasonetik** hurbil, **Bastallenea** eta karreteraren artean.

• ATARIA IREKITZEKO ETA IREKITZEKO!

Behin, mutiletan, Juanito Azpirotz, Martin Erbiti, Juan Erbiti Aldaregia eta besteren bat bazetozen Ultzamatik, bizikletan, pestetatik, goizeko hiruak aldera etxera. Basaburuko sarreran Juanitok esan omen zien, Aizarozko Juan-en etxean sartu behar zutela sorgin afaria egitera. Besteak nahi ez, baina, denak Junitoren atzetik Juan-en etxera.

Iritsi eta Juan-en etxean argirik ez.

Danba-danba jo ataria eta Juan leihora.



▲ Benta. Orain erabat berritua, atea ere beste alderdi batetik du orain.



-Ze zailtze?

-Iki zak atarie Juan -Juanitok.

-Biño hok e'ttuk garaiek!

-Iki zak atarie Juan -berriz ere Junitok.

-Biño hok e'ttuk garaiek motel, taberna ikitzeko!

-Iki zak atarie, Juan -hirugarren aldiz Juanitok

Hiru aldiz eskatu zion ataria irekitzeko, ahotsaren doinua, tinbrea, seguru aldi guzietan aldatu zuela. Azkenekoarekin Juanek entendatu.

Eta Juan-ek ataria ireki eta sorgin afaria bertan egin zuten.

Bai, Juanitok, bazuen konfiantza osoa Juanek irekiko ziela ataria. Ez zuen dudarik!

• **HEMEN ATARIA IREKITZEKO ERREGUZ PEDRO MARI OTAÑO DAKARGU (1857-1910)**

Patramanen atarian, irekitzeko zai.

Herreran (Donostiako kanpoko auzoa) izaten zen **Patraman** taberna. Pedro Mari Otaño bertsolari handia, behin Irundik Donostia aldera zetorren kotxean (sic) eta Patramanekoa ezaguna izan eta bertan gelditu. Deitu bai, baina ireki ez.

Orduan, bertso hau bota omen zion:

Beraz, etxe honetan

bizi da Patraman?

Azkar aberasteko

zer martxa daraman!

Nik zerbait utzitzeko

asmoa neraman

Hortxen konpon dedilla

Nai ez badu eman

Otaño ez ote zen oroitu ebanjelioan hain famatua den pasarte hartaz? Eska ezazue eta emanen zaizue. Behar hainbat behintzat ez zekien eskatzen, gure Junitok bezala. Fede gutxiko gizona!

OHARRA: **Kotxea** jartzen dugun horretan EZ da autoa, kotxea baizik, zaldiz ibiltzen zena, alegia. Garai hartan autorik ez zen.

• **DIOGENES, LOSINTXA, LAUSENGUA ETA ZURIKERIA GUZIEN ETSAI.**

Diogenes, Jesukristo baino 412 urte lehenago jaiotako filosofo greziarra. **Diogenes zakurra** esaten zioten burla airez edo, eta berak izengoitia ongi iduritu eta beretzat hartu zuen.

Munduko handikeriak, ondasunak, honrak eta famak, denak zituen gaitzets. Zorrotza zen denekin, diplomaziarik gabea.

Behin batean Diogenes dilistak jaten ari zenean, Aristipo beste filosofo batek ikusi eta esan omen zion:

-Erregeri loxintxa egiten ikasi bezenu, ez zenuke dilistarik jan beharrik izanen.

Eta Diogenesek, dilistak jatetik utzi, eta hitzetik hortzera ziola:

-Eta zuk, dilistak jaten ikasi izan bazenu, ez zenioke Erregeri koipea ematen ibili beharrik.

• **WHATSAPPEZ**

-Aita, zer moduz zabilta?

-Egonean motel, egonean!

-Jajajaja!

Iruzkina: 2020ko martxoaren 18a da. Koronobirusak etxean sarrarazi gaitu. **Ibiltze** kontu hori bukatu da oraingoz.

Gaurkoan, dena dela, Aizarotzik Ultzaman barna, Atenasa jo dugu, ondoren handik itzulian Erbitin bukatzeko. Ez dugu gehiago behar.



Txurdan

• **Hiztegia**

• **Dilista:** Lenteja

• **Zipla (ziple):** Ateraldi zorrotza

• **Koipea:** Grasa

• **Iruzkina:** Comentario



▲ *Etxeberria eta Etxettikia, galeria batekin lotuak.*



Errezeta pausoz-pauso entzuteko

‘Maritxuren tarta’

Mugiroarra da Maritxu Goldarazena, baina duela 40 urte baino gehiago etorri zen Etxalekura. Bertan hazi ditu, senarrarekin, bi semeak. Duela ia 10 urte alarguna da, baina semeetako bat ondoan bizi da, Etxalekun. Gainera, askotan biltzen dira ilobekin batera. Bestalde, igandero, Mugirora joaten da, bertan baititu anaiak. Elkartzen direnean bere tarta goxoa prestatu ohi du. Hemen, jarraitu beharreko pausoak. Dena den, usoa da bere espezialitatea, hurrengo batean irakatsiko digu, gaur, ordea, postrea tokatzen da.

OSAGIAK

8 arrautza

Azukrea, irina eta altxagarria

Litro erdi esnegain

Marmelada

Moskatela

• PAUSOAK:

1) Zortzi arrautzak hartu eta bereiztu gorringoa eta zuringoa. Gorringoari lau koilarakada azukre bota eta irabiatu, loditu arte. Zuringoa jasoko dugu ondoren. Horretarako, zuringoa ongi irabiatu.

2) Goazen berriz gorringo kremarekin. Azukrearekin nahastu eta irabiatu ondoren, lau koilarakada irin bota, iragazkiaz baliatuta, pikorrik ez gelditzeko.

3) Jasotako zuringoaren erdia gorringoari bota eta koilara batekin ongi nahastu. Honi beste lau koilarakada irin eta sobre bat Royal altxagarri bota, eta nahastu. Dena ontzi batean jarri eta labera sartu. 35 minutuz izanen da bertan 150-170 gradutan.

4) Labean ongi egin dela jakiteko orratz bat sartu eta lehorrik

ateratzen bada, prest dago. Labetik atera ondoren, utzi hoztu arte.

5) Behin hoztu dela, goiko partea moztu, txapela bat egingo bagenio bezala, eta beheko partea mozkortu. Horretarako, moskatela, ura eta koilarakada bat azukre nahastu eta irakiten jarri. Ondoren, hoztu denean, tartaren bizkotxora bota. Marmelada ere zabalduko dugu bizkotxoan.

6) Esnegaina jasoko dugu orain. Esnegaina litro laurdenari, gutxika-gutxika, irabiatu bitartean, azukrea bota. Gelditzen den zuringoarekin nahastu eta marmelada gainean zabaldu hori ere. Baita tartaren paretetan ere.

7) Txapela jarriko diogu tartari -lehen kendu diogun goiko parte hori- eta txapelaren gainean ere marmelada zabaldu. Gelditzen den esnegain laurdena ere jaso eta txapela dekoratu.

▼ Guk izendatu dugun ‘Maritxuren Tarta’



▲ Maritxu eta lagunak




Haurrak eskolara bidaltzen al dituzu?

Kontatzen ba al dakite?

Aintzineko egunean euskaraz jakitea zer zen aipatu genuen. Edo hobeki esan, euskaraz kontatzea zer zen. Baina ez numeroak jakitea, zerbait kontatzea baizik. Zerbaiten azalpenak ematen jakitea.

Gaur EGBko gaztetxoek nola kontatzen duten ekarri nahi izan dut. Orain bi urte edo, eskola batean txango bat egin eta naturan lekizio teoriko-praktiko bat eman zieten irakasleek. Biharamunean ikasgai horretaz galdetu eta hona nola kontatu zuten:




Gaurko (?) ekintza **oso ongi egon da** niri errepikatzea gustatuko **zitzaidan**/ez nuke ezer aldatuko/oso ondo pasatu dut.

Gaurko (?) ekintza **oso ona izan da** eta niri errepikatzea gustatuko **litzaidake**/ Ez nuke ezer aldatuko/oso ongi pasatu dut.



Bai gustatu zait bereziki korroan **jartzea eta asmatzea izenak**.

Bai, gustatu zait, **bereziki korroan jarri eta izenak asmatze jokoa**.




Asko gustatu zait dena/ez nuke aldatuko/oso ongi pasa dut eta berriz egingo nuke baina **beste gaia**.

Asko gustatu zait dena/ez nuke aldatuko/oso ongi pasatu dut eta berriz egingo nuke baina beste gai **bat izanik**



Ez zegoen gaizki baino obeto izango zen bi klaseak **elkar egotea** eta beste **motako** gauzak egitea. Baina oso gustura **pasa** dut.

Ez zen txarra izan, baina **hobe** izango zen bi klaseak **elkarrekin batzea** eta beste mota**tako gauzak egitea**. Baina oso gustura pasatu dut.




Niri asko gustatu **zait** animaliak. Baina **obeto zen** denok **berdina egitea**.

Niri asko gustatu **zaizkit** animaliak. Baina **hobe zen** denok **gauza bera egin izan bagenu**.



Niri gustatu zait baina animaliak batzuk oso sosoak dira. Eta ez zait ongi iruditu **beste klasekoak berdina ez dutela egin**.

Niri gustatu zait baina animalia batzuk oso sosoak dira. Eta ez zait ongi iruditu **beste klasekoak gauza bera ez egin izana**.



Ongi **baina ez naukan pazientzia egiteko eta pixkot (sic) aspergarria zen**.

Ongi, baina gauzek egiteko pazientziarik ez neukan, eta aspergarri samarra gertatu da.



Niretzat bixko bat aspergarria izan da, baina gauzak ikasi ditut.

Niretzat aspergarri xamarra izan da; dena dela zenbait gauza ikasi dut.

Bai, haur-gaztetxo hauek ez dakite kontatzen. Ez dakite euskaraz. **Beharbada, ikasiko dute, baina helduok hainbat gauza aldatzen ez baditugu, nekez!**

Etxean gurasook, eskoletan irakasleok... karriketan, telebista eta gainerako hedabideetan, dena aldatu eta hobetu beharra daukagu. Ekinen diogu? Esazu bai!

Ekar ezazue ardo frexkoa, badugu eta beharra!

 Txurdan

OHARRA:

Material hau guraso batek eman zidan, erabat kezkatutik bere semeak zerabilen euskararekin. Nire iritzia ere jakin nahi zuen. Orduan hitzez eman nion eta, orain, idatziz Pulunpen jarri nahi izan dut, guraso guziek irakur dezaten.



▲ Andaluziako paretan ikusi zen pintada, Espainian eta Hegoamerikan hedatu dena. Famatu zen. Hiru hitz eta lau oker ortografiko daude noski. Dena dela, idatzen ez zekien, baina gazteleraz bai. Ahozko hizkuntza ederki zekien andaluz horrek. Gaztelera da. Aldiz, gure zenbait haurren hizkera uste duzu euskara dela?



landa oiloen borda

Mendiurrun



Olagueko Mendiurrun mendian 600 oilo ditu Amaia Senosiain Artozkik

Ekainean oiloak hazten hasi zen Amaia Senosiain Artozki Olagueko Mendiurrun mendian. 100 oilorekin hasi, eta 600 ditu, honezkero, administrazioak jarritako oztopoei aurre eginda. Horretarako, aitaren borda egokitu zuen senarraren laguntzaz. Atarrabian, Mendillorri, Antsoainen eta, noski, Olaguen bertan saltzen ditu oiloak. Eskaerak Whatsapp bidez egiten dizkiote, sortzen joan diren taldeen bitartez. Pedro Senosiainen eta Luisa Artozkiren alaba, Etxarri etxean hazi zen Amaia, eta 15 urtez Atarrabian bizi ondoren, Olaguera itzuli zen senarrarekin eta seme-alabekin. Orain, 50 urte bete berri dituenean, negozioa jarri du, eta pozik dago emaitzarekin, uste baino askoz hobeto baitoa.

• ZERGATIK JARRI ZENUEN OILATEGIA?

Betidanik izan ditugu oiloak etxean, guretako. Lagun batzuek arrautzak eskatzen zizkiguten, goxoak iruditzen zitzaizkien, eta geroz eta gehiagok eskatzen zituzten. Nik lanik ez nuenez, bada, oilategia jartzea bururatu zitzaigun. Horrela, Nafarroako Gobernuan galdetzen hasi ginen. Urtebetera ireki genuen, hasieran oztopoak jarri baitzizkiguten: bideragarria ez zela esaten zuten. Gainera, laguntzarik ez dute ematen, oso txikia delako..., eta nik pentsatzen dut: txikia banaiz, bada, eman laguntza txikia.

▼ Amaia Senosiain Artozki



• ETXEAN JARRI AL ZENUTEN OILATEGIA?

Ez, etxean sailkatzeko tokia dugu, bertan, arrautzak tamainaren arabera sailkatu, ontzietan sartu eta zigilua ezartzen diegu. Hau da, salmentarako prestatzen ditugu. Etxeko garajea jarri genuen hori. Oiloak, ordea, nire aita zenaren borda batean ditugu, Olagueko Mendiurrun mendian.

• NOLAKOA DA ZUEN OILATEGIA?

Gaztelaraz 'camperas' esaten dieten horietakoak dira oiloak. Hau da, landako oiloak dira, soroan aske ibiltzen direlako. Goizean borda zabalduta, eta kanpora ateratzen dira, eta nahi dutenean bordara itzuli, errutera. Bordan ura eta pentsua ere, nahierara dute.

• INBERTSIO HANDIA EGIN BEHAR IZAN ZENUTEN?



▲ Mendiurrun mendian, aitaren bordan ditu oiloak Amaia Senosiainek. Aske dabilta soroan.

Nire senarrak asko egin zuen, eraikuntzan lan egiten duenez.

• NORI ETA NON SALTZEN DITUZU ARRAUTZAK?

%80 norbanakoei saltzen diet, eta gero hainbat dendatan ere bai. Herrika eta auzoka taldeak sortu dira, eta talde horiek handitzen joan dira. Atarrabian, Mendillorri, Sarrigurenen eta, noski, Olaguen ere saltzen ditugu. Nik eramaten ditut, talde bakoitzarekin gelditu, eta arrautzak eramaten dizkiot. Demagun auzo batean ostegunean jaso nahi dituztela; bada, ostegunero auzo horretara noa. Whatsappez kontaktatzen dut beraiekin, taldeak osatu baitituzte, eta bertan norberak zenbat nahi dituen jartzen du. Gero, Olagueko okindegian, Atarrabiako eta Antsoaingo harategi eta arraindegi batzuetan ere saltzen ditugu.



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

Zorionak Zorionak!



Zorionak Maren!



Zorionak Nai!



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Larraintzarko pilota taldea

Buruzgain

Emaitza onak lortu dituzte Buruzgain Pilota Klubeko kideek Nafarroako Kirol Jokoetan

Txapeldun izan ziren Ultzamako Buruzgain klubeko Irati Gerendiain eta Kattalin Peñalver, alebin mailako pilotariak. 18-10 gailendu ziren Goizuetako Umore Ona klubeko bikotearen aurka martxoaren lehenean Leitzañan jokaturako finalean. Emaitza bikainak dira, kontuan izanik gainera duela urtebete eskas hasi zirela neskok pilotan jokatzeko.

Nesken infantil mailan ere emaitza onak izan dituzte Buruzgaingo pilotariak: finalerdiak jokatu zituzten Mirari Iturralde eta Garoa Hernandezek Nafarroako Kirol Jokoetan. "Nesken txapelketa honetan lehen mailan jokatzeko dute kadeteek eta hortik gorakoek, bigarren mailan sartzen dira infantilak eta hirugarren mailan benjamin eta alebinak. Horrela banatzen dituzte mailak, oraindik ez baitaude mutiletan bezain beste neska jokatzeko dutenak", azaldu digu Aitor Paternain Buruzgaingo entrenatzaileak.

Paternainek azaltzen duenez, geroz eta neska gehiago animatzen dira azkenaldian, ikusten baitute geroz

eta txapelketa gehiago daudela eta helduen mailan ere jokatzeko jarraitzeko aukera izanen dutela. "Duela urte batzuk ni Uhartean aritzen nintzen, eta han egon zen neska bakar bat jokatzeko, baina 12 urterekin futbolera joan behar izan zuen jarraitzeko aukerarik ez zuelako", dio.

Alebin mailako mutilen kasuan, lehen mailan azpitxapeldun suertatu ziren Buruzgaingo Pablo Aldaz eta Unai mindegia pilotariak, eta bigarren mailan berriz, Markel Iribarren eta Markel Iturralde txapeldunak izan ziren. 11-12 urte inguruko gaztetxoak dira maila horietan jokatzeko dutenak, eta klubeko gaztetxo gehienak Ultzamakoak bertakoak direla adierazi digu entrenatzaileak.

Buruzgain klubaren bilakaera

Nafarroako Kirol Jokoetako emaitzekin eta orokorrean Buruzgainen jokatzeko duten pilotarien mailarekin oso pozik agertu da Aitor Paternain entrenatzailea. 2013an iritsi zenetik gaur arte bilakaera oso positiboa izan duela uste du:

"Aurten Buruzgainen osotara 68 jokalaridaude, 63 mutil eta 5 neska. Lortu dugu pilota pixka bat modan jartzea eta jendea animatzea. Eta asko emaitza eta maila oso ona ematen ari dira, gainera", dio.

Helduen artean ere zenbaitzuk oso goian jokatzeko ari direla kontatu digu Paternainek. Ea baten batek sorpresarik ematen digun! "Pozik egon gaitezke, Ultzama bezalako bailara txiki batean Nafarroako pilota klub onenetakoa dugula eta!".



▲ Alebin 2. mailako txapeldunak, Iribarren-Iturralde

▼ Alebin 1. mailako azpitxapeldunak, Mindegia-Aldaz



▲ Alebineko txapeldunak, Gerendiain-Peñalver



Udaberrian etxean geratu eta gozatu!

“Kax-kax” atea jo digu udaberriak martxoan. Atea jo digu ateak itxita ditugun honetan, udaberriak ez baitaki koronabirusari buruz. Gizartea geldialdi batean sartua dagoen bitartean, udaberriak bere erritmoa darrai eta zorionez, goizero leihoak irekitzearekin batera txorien kantuek belarriak pozten dizkigute eta kolore ezberdinetako loreek gure bazterrak apaintzen dituzte. Agian geldialdi honek udaberriaren etorreraz jabetzeko balio izanen digu eta naturaren erritmoari entzuteko, aspalditik entzungor egiten baitiogu gure gurpil eroan murgilduta.

Eta aurren bereziki, udaberriari ataria ireki eta ongi etorri ederra eman diogu, bai horixe! Aspaldian ez bezala. Batek baino gehiagok koronabirusak jota erotu naizela pentsatu izanen du hitz hauek irakurritan. Ez dut ezetz esanen baina, CO2 isuriak murriztea eta kutsadura jaistea ez al da ba udaberria behar bezala ospatzea? 2008an, krisialdi ekonomikoan sartu ginean gertatu zen hau azkenekoz, baina berriz ere “normaltasunean” sartuta geunden.

“Etxean geratu” leloa izan da koronabirusaren fenomenoak eskuak garbitzeko gomendioarekin

batera ekarritako agindua. Inposatutako aldaketak ordea, ez ditut gogoko. Nahiago guk hartutako erabakien ondorio direnak. Hona hemen etxetik atera zaitezketen hurrengo hilabeterako proposamen eta erronka, askatasun osoz egiteko hautua: etxetik atera bai, baina autoa bakarrik hartu lanera joateko ezinbestekoa baduzue edo oinarritzko beharrak asetzeko. Irakurri, paseatu, baratzeko lanak egin, umeekin jostatu, entzun, sentitu, idatzi, kantatu, dantzatu,... eta batez ere udaberriaz edo udaz gozatu eta gutxi kutsatu! Zuen osasunak eta Lurrak eskertuko dizue. Udaberri on!


Lurra


▲ udaberiko lorea



Umorezko

Koronabirusaren kontra, umorezko literatura

Arraroa da egoera honetan idaztea. Are gehiago, lerro hauek argitaratu baino egun batzuk lehenago bidali behar izan ditudanean. Batek daki zein izanen da egoera zuek, irakurle maiteok, Pulunpe hau jasotzen duzuenean. Berrogeiladiak jarraituko du? Etxean egonen gara oraindik?...

Segur aski, bai. Itxialdia 15 egun gehiago luzatu berri da, apirilaren 11 arte. Gutxienez. Denbora dezente irakurtzeko. Hala ere, ez da erraza liburu aproposak aurkitzea, dena triste eta gogorra denean –albisteak, datuak, hildakoak...— eta, wasaparekin gertatzen den bezala, agian, behar duguna egoera arraro honetan, umore pixka bat da. Beraz, umorezko hainbat liburu gomendatuko ditugu gaur.

Klasiko batekin hasiko gara: **La conjura de los necios**, John Kennedy Tooleena. Orain dela gutxi irakurri genuen, hain zuzen ere, Ultzamako irakurle taldean. Eta egia esanda, bere protagonistak, Ignatius Reillyk, jarraitzaile amorratu asko ditu. Baina baita gorrotatzen dutenak ere. Izan ere, Ignatius berekoia, alferra, zikina da... Bere amaren etxean bizi da, eta bere gelaren barrutik mundua hobetzeko borrokatzen duen hogeita hamar urteko pertsona da. Aldi berean, New Orleansko kaleetan barrena arrastaka ibiliko da lan bila, bere ama mozkortuta gidatzen ari zen bitartean izandako auto istripu batean sortutako gastuak ordaindu ahal izateko...

Hori da, gutxi gorabehera liburuaren argudioa. Batzuen ustez, aldiz, liburuan ez da ezer gertatzen. Eta agian hor dago

koska: Ignatius bere ibilbidean laguntzea eta bere mundua ulertzen saiatzea. Besterik gabe. Batzuek egingo dute barre, eroak bezala, eta beste batzuei ez die inolako graziaz egingo. Saiatu behar da.

Horretaz aparte, liburu eta egilearen istorioa nahiko tristea da, nahiz eta umorezko literaturaren klasiko bat izan. John Kennedy Toole bere liburu argitaratu ikusi gabe hil zen. Izan ere, bere buruaz beste egin zuen liburua inork ez zuelako argitaratu nahi. Bere ama izan zen liburua kaleratzea lortu zuena, suizidotik hamaika urte pasa ondoren. Eta hamaika argitaletxeren atara jo behar izan zuen hori lortzeko. Azkenik, editore txiki bat animatu zen... eta liburua berehala arrakasta lortu zuen, Pulitzer saria

irabazi zuen, milaka ale saldu ziren, hizkuntza askotara itzuli zen eta, azken batean, umorezko literaturaren klasiko bihurtu zen.

Beste “klasiko” bat aipatuko dugu orain: **Sin noticias de Gurb** (“La conjura de los necios”



La conjura de los necios ▲



bezala, ez ditugu euskarazko bertsiorik aurkitu), extralurtar baten abenturak kontatzen dizkigu. Gizakiak ikertzeko Marta Sanchez abeslariaren itxura, besteak beste, hartuko ditu extralurtarrak. *Sin noticias de Gurb* uda batean egunkari batean atalka kaleratu zen, arrakasta lortu baino lehen. Ez da Mendozaren umorezko liburu bakarra, eleberri motza eta dibertigarri honetaz aparte irakur ditzakegu bere izenik gabeko detektiberen seriea: *El misterio de la cripta embrujada*, *El laberinto de las aceitunas*...


Askoz ezezagunagoak dira Venance Konan Boli Kostako idazlearen liburuak. Hemen ebooken bidez bakarrik irakurtzen ahal dira, 2709 books argitaletxeari esker. **El entierro de mi tío** edota **Robert y los Catapila Konanen** liburu dibertigarrietako batzuk dira. Boli Kostako ohiturak kontatzen dizkigute, umore aldetik (hileta bukaezinak, politika, sexua, alkohola...). Oso gomendagarriak, benetan; eta, gainera, digital moduan argitaratuak, aproposak etxetik erraz lortzeko eta egunotan irakurtzeko.

Zerrenda luzea izan daiteke (Tom Sharperen liburuak, Elvira Lindoren Manolito Gafotas, Joxean Sagastizabalen liburuak, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, bezalakoak...) baina bukatuko dugu normalean zerrenda hauetan agertzen ez diren bi liburu aipatuz: **Guía de Mongolia**, Serbiako Svetislav Basararen idazlearena; eta **Estoy desnudo**, Yatsutaka Tsutsui-ena, Japonetik. Ez dugu ezer gehiagorik esango. Bilatu, irakurri eta gozatu!

 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburuzaina



▲ *Kutxidazu bidea Ixabel*



Sin noticias de Gurb ▲



2020ko otsailean

2020ko otsailean gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ULTZAMA Alkotz

Sebastian Constantin Coada, otsailaren 7an sortu zen, Andre eta Margaretaren semea.



▲ Unai etorri zaigu Alkotza

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak

Otsailean, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

Heriotzak:

ANUE Burutain

Maria Jesus Aranguren Orrio, otsailaren 26an hil zen, 92 urtetan. **Kaskoneko** etxekoandrea.



▲ Maria Jesús Aranguren

BASABURUA Aizarotz

Miguel Iragi Erbiti, otsailaren 28an hil zen, 80 urtetan. **Luziaren bordako** nagusia.



▲ Miguel Iragi

ODIETA Latasa

Martin Elizondo Aragon, otsailaren 13an hil zen, 97 urtetan. **Apezeneko** nagusia.



▲ Martin Elizondo

Orokietak-Ola

Pedro Altsua Urkiola, otsailaren 6an zendu zen, 92 urtetan. Olako **Etxeberriko** nagusia.



▲ Pedro Altsua

ULTZAMA Auza

Isabel Anduaga Anduaga, otsailaren 18an zendu zen, 92 urtetan. Auzako **Mekanikoaren** etxeko etxekoandrea.



▲ Isabel Anduaga

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



KORONABIRUSA



1

BAT-BATEAN ARNASBIDEETAKO
SINTOMA AKUTUAK BADITUZU,



sukarra



eztula



arnasarik eza

**GERATU ETXEAN ETA DEITU
ZURE OSASUN-ZENTROARI.**

2

ZURE OSASUN ZENTRUAREN
ORDUTEGITIK KANPO BAZABILTZA,



DEITU OSASUN AHOLKUAREN TELEFONORA



948 290 290

3

PREMAIAZKO ARRETA BEHAR BADUZU,
DEITU HONA:



112

